

2008KO EZAUGARRI METEOROLOGIKOAK
CARACTERÍSTICAS METEOROLÓGICAS DEL AÑO 2008

RESUMEN ANUAL.

El balance de la precipitación del 2008 es positivo en el País Vasco y puede catalogarse como un año muy húmedo. Los porcentajes respecto a la precipitación normal del periodo 1971-2000 se encuentran entre un 110 % y un 130 %.

Arranca el año, sin embargo, con la calificación contraria. Enero y febrero se comportan de manera muy seca, sobre todo, este último mes, en el que llueve menos del 30 % de la media en buena parte del territorio. La situación comienza a revertirse en la primavera. De hecho, en marzo se establecen nuevas efemérides de precipitación acumulada en la vertiente cantábrica. Además, la nieve, hasta entonces inédita, hace acto de presencia en cotas bajas coincidiendo con el equinoccio. En mayo las abundantes precipitaciones dan lugar también a nuevas efemérides, esta vez en la vertiente mediterránea. La situación se prolonga hasta mediados de junio. Durante el trimestre julio-septiembre las precipitaciones son escasas, de manera que presenta características secas. Se repite la categoría de muy húmedo durante el otoño en la vertiente cantábrica. Unido a las precipitaciones cabe destacar los numerosos episodios de nieve ocurridos durante el último trimestre del año. La primera entrada de aire frío se produce a partir del 27 de octubre, repitiéndose este fenómeno hasta en otras 5 veces hasta el final del año.

El área más lluviosa ha sido el este de Gipuzkoa, con varias estaciones por encima de los 2000 mm, Añarbe con 2460 mm ha sido la estación que más precipitaciones ha recogido, le sigue Leitzaran con 2255 mm. En Bizkaia ha sido Urkiola con 1840 mm. Álava ha registrado las precipitaciones más escasas, aun así, las zonas montañosas del norte de la provincia recogieron cantidades considerables, con valores de 1577 mm en las faldas del monte Gorbea. También destaca Llodio, en la cuenca alta del Nervión, con 1510 mm. En el lado opuesto, Párganos con 735 mm es el valor mínimo.

Se han superado en numerosas estaciones los 200 días de precipitación, volviendo a ser el este de Gipuzkoa, con Leitzaran, con 224 días el punto con más días de lluvia. En Álava la media ha estado situada en torno a los 170 días, siendo el sur de Álava la zona con menos días de precipitación quedándose sobre los 140.

Las precipitaciones más intensas se produjeron en episodios tormentosos, siendo el más extremo el ocurrido el 16 de junio con un valor de 23.6 mm en diez minutos registrados en Urkiola.

Las precipitaciones máximas en 24 h se registraron el 1 de junio, afectando de forma especial a la zona del Gran Bilbao, siendo Deusto con 124.7 mm la cantidad más significativa, seguidas de 96.3 mm de Mungia y 88 mm de Llodio

URTEKO LABURPENA.

2008. urtean prezipitazioa ugaria izan zen EAEan eta urte oso hezetzat har daiteke. Jasotako prezipitazio kopurua 1971-2000 denboraldiko balio normala baino handiago izan zen, %110 eta %130 artean aurkitzen da 2008koa.

Urtearen hasiera, aldiz, lehorra izan zen. Urtarrila eta otsaila, hilabete oso lehorrak izan ziren, eta batez ere otsaila, lurraldeko eremu zabal batean ohiko balioaren %30a baino gutxiago pilatu zen. Udaberrian, kontrako joera hartu zuen eguraldiak. Martxoak, portaera hezea izan zuen eta kantauri isurialdean prezipitazio kopuru handia pilatu zen; ekinozio egunean, lehen aldiz elurra egin zuen maila baxuetan. Maiatzean euria erruz egin zuen eta efemeride berriak izan genituen, kasu honetan mediterranean isurialdean. Egoera ekainaren erdialdera arte luzatu zen. Uztailetik irailera bitartean, aldiz, prezipitazioa eskasa izan zen, eta hiruhilabeteko hau lehorra izan zela esan daiteke. Udazkena, kantauri isurialdean, oso hezea izan zen eta elurra egun askotan egin zuen. Aire hotza lehen aldiz urriaren 27an sartu zen gurean eta fenomeno bera 5 aldiz errepikatu zen urtea amaitu baino lehen.

Eremurik euritsuena Gipuzkoako ekialdea izan zen, 2000 mm-tik gora jaso ziren (Añarbe 2460 mm, Leitzaran 2255 mm). Bizkaian, Urkiolan jaso zen prezipitazio gehien, 1840 mm. Jasotako euri kopurua txikiagoa izan zen Araban, hala ere, iparraldeko mendi inguruetan prezipitazio asko pilatu zen (1577 mm Gorbeiako hegalean). Adierazgarria izan zen Laudioko estazioan, Nerbioi ibaiaren arroan, pilatutako ur kopurua (1510 mm). Beste muturrean, Paganoseko estazioan 735 mm besterik ez ziren jaso, balio minimoa.

Euria egin zuen egun kopuru handiena Gipuzkoa ekialdeari dagokio (Leitzaranen 224 egun) baina estazio askotan 200 egun baino gehiagotan euria egin zuen. Araban, batez beste, 170 egunetan egin zuen euria, hegoaldean 140 egunetan besterik ez.

Prezipitazio gogorrenak, ekaitz egunetan jaso ziren. Gertakari esanguratsuena ekainaren 16an izan ziren, Urkiolan 10 minututan 23.6 mm jaso ziren.

24 ordutan pilatutako prezipitazio kopuru handiena ekainaren 1ean jazo zen, batez ere Bilbo Handian (Deusto 124.7 mm) nahiz eta inguruetan ere asko pilatu zen (Mungia 96.3 mm eta Laudio 88 mm).

A nivel térmico, el año 2008 puede calificarse como cálido en la costa y muy cálido en el interior. La temperatura media se ha aproximado a los 15 °C en el litoral y ha superado los 12 °C en la Llanada Alavesa.

El año ha tenido dos periodos bastante diferenciados, el primero con temperaturas por encima de la media, mientras que el segundo semestre se puede calificar de frío. De enero a junio todos los meses han sido cálidos o muy cálidos, mientras que julio y agosto han sido normales y ya los restantes, septiembre, octubre, noviembre y diciembre se han comportado como fríos o muy fríos. La secuencia más larga de días por encima de la media tiene lugar a lo largo de la segunda quincena de junio. El resto del verano, excepto algunos días de finales de julio, las temperaturas registradas han sido frescas. Siendo el día 23 de Julio el más caluroso, registrándose la que es la temperatura más alta del año con 40.4 °C en Sodupe-Herrerías. Las mínimas absolutas tienen lugar el primer día del año con valores de -9.5 °C en Navarrete y los -8,4 °C de Salvatierra. Iturrieta y Navarrete con 81 destacan sobre el resto por días de helada.

Las estaciones ubicadas en las cumbres de las montañas son las que han registrado velocidades medias de viento más altas, por encima de 20 km/h en muchas de ellas. Los valores más elevados se corresponden con Oiz (27.7 km/h) y Zaldiaran (23 km/h). Las zonas costeras también presentan velocidades medias importantes, en torno a 17 km/h en Punta Galea y 15 km/h en Zarautz. En la Llanada Alavesa y los valles del interior de Gipuzkoa y Bizkaia los valores se reducen considerablemente, entre los 6-8 km/h. La evolución a lo largo del año muestra un valor máximo en diciembre con 36 km/h en Oiz, aunque seguido muy de cerca por el valor de marzo.

Se han alcanzado varias rachas máximas de viento por encima de los 120 km/h, restringidas a los meses de enero, noviembre y diciembre. El valor más alto registrado se alcanzó en Orduña el día 15 de enero con 148.3 km/h de dirección suroeste, debido a una profunda borrasca situada cerca de las Islas Británicas. También huracanadas pero de componente norte, soplan durante los días 23 y 24 de noviembre y 5 de diciembre. En verano asociadas a zonas de tormentas también se registran rachas muy fuertes, incluso alguna huracanada (Orduña 122 km/h el 23 de julio).

Temperaturari dagokionez, 2008 urtea epela izan zen kostaldean eta oso epela barnealdean. Batez besteko tenperatura 15 °C-ra hurbildu zen kostaldean eta 12 °C-ra Arabako Lautadan.

Bi zatitan bereiztu daiteke urtea temperaturari erreparatuz gero. Lehenengo seihilekoa epela izan zela esan liteke, batez besteko tenperatura balio normalaren gainetik geratu baitzen, eta bigarrena, aldiz, hotza. Urtarriletik ekainera bitarteko hil guztiak epelak edo oso epelak izan ziren. Uztaila eta abuztua, aitzitik, normaltzat jo daitezke. Gainontzekoak, irailtik abendura bitartekoak, hilabete hotzak edo oso hotzak izan ziren. Ohiko batez bestekoa baino balio altuagoak neurtu ziren egun segida luzeena, ekaineko bigarren hamabostaldia izan zen. Udako gainontzeko egunetan, uztaile amaierako egun bakan batzuk salbu, tenperatura baxuagoak neurtu ziren. Uztailearen 23a urteko egunik beroena izan zen (Sodupe-Herrerias 40.4 °C). Tenperatura minimo absolutuak urteko lehen egunean neurtu ziren (Navarrete -9.5 °C, Agurain -8.4 °C). Izotza egin zuen egun kopuru handiena Iturrieta eta Navarreteko estazioei dagokie, 81 egun, hain zuzen ere.

Mendi inguruetan dauden estazioetan neurtu ziren haizearen batez besteko abiadura handienak, gehienetan 20 km/h-ko abiadura gainditu zen. Baliorik handienak Oizen (27.7 km/h) eta Zaldiaranen (23km/h) neurtu ziren. Kostaldeko estazioetan neurtu ziren batez besteko abiadurak ere kontutan hartzekoak dira: Punta Galean 17 km/h eta Zarautzen 15 km/h. Arabako Lautadan, eta Gipuzkoa eta Bizkaia barnealdeko bailaretan, aldiz, batez besteko abiadura txikiagoa izan zen, oro har 6-8 km/h-koa. Urte osoko datuak kontutan hartuz gero, abenduak batez besteko abiadura izan zen handiena (Oiz 36 km/h), martxoak gertutik jarraitu zion arren.

Haize-bolada bortitzak (120 km/h-ko abiaduratik gora) behin baino gehiagotan neurtu ziren urtarrilean, azaroan eta abenduan. Baliorik handiena urtarrilaren 15ean neurtu zen Orduñan, hego-mendebaldeko 148.3 km/h-ko haize-bolada; Britainiar uharteetan kokatu zen depresiogune sakon batek eragin zuen haizetea. Nabarmentzekoak dira ere, azaroaren 23an eta 24an, eta abenduaren 5ean jazo ziren iparraldeko haize-bolada bortitzak. Ezin ahaztu ere, udan, ekaitz guneeetan neurtu ziren haiz-bolada oso gogorrak, tarteka bortitzak (uztailearen 23an Orduñan 122 km/h).

ENERO

La situación sinóptica durante la primera quincena de enero ha estado caracterizada por la circulación zonal. Varias borrascas han discurrido por el borde septentrional del cinturón de altas presiones subtropicales, que han dejado, en general, precipitaciones débiles, jornadas de viento intenso y mala mar. A partir del día 18 las altas presiones se asientan sobre la Península Ibérica, dando lugar a un tiempo seco y más soleado, aunque con frecuentes nieblas matinales. La dorsal anticiclónica eleva progresivamente las temperaturas máximas, sobre todo en el interior del territorio. Ya en la última semana del mes, persiste la estabilidad atmosférica, al penetrar sobre el continente el anticiclón polar atlántico.

La variabilidad espacial de las precipitaciones ha dado lugar a calificaciones diferentes para el mes de enero, de muy seco en buena parte de Álava y el interior de Bizkaia, a normal en las comarcas más orientales, aunque por debajo de la media. Los pluviómetros del noreste de Gipuzkoa son los que más precipitación han registrado (Andoain 111 mm, Oiartzun 158 mm), seguidos por los del litoral vizcaíno (Bermeo 95 mm, Muxika 88 mm). Las cantidades descienden rápidamente hacia el sur del territorio (Zambrana 22 mm, Párganos 18 mm). El día 12 se registran chubascos fuertes en la estación de Oiartzun y unos significativos 47.2 mm. Más generalizadas son las precipitaciones de los días 11 y 15, con cantidades en la vertiente cantábrica algo por encima de los 20 mm. En cualquier caso, episodios de escasa relevancia.

Las temperaturas registradas califican el mes de enero, en general, como muy cálido. La media en la costa se ha situado en torno a los 11 °C, y en la Llanada Alavesa entre 6-7 °C, más de 1.5 °C por encima de lo normal. El año se estrena con heladas generalizadas en todo el territorio, exceptuando en la costa. La fuerte irradiación nocturna hace que se registren ese día las mínimas absolutas (Navarrete -9.5 °C, Salvatierra -8.4 °C). Sin embargo, las heladas no han sido las protagonistas de enero. En la primera parte del mes, el flujo marítimo introduce masas de aire templadas; en la segunda, las altas presiones mantienen elevadas las temperaturas máximas. Así, los días 6, 20 y 21 se superan los 20 °C en varios puntos del litoral.

Durante la primera quincena del mes ha predominado el flujo zonal, registrándose en numerosas ocasiones rachas de viento muy fuertes en zonas expuestas, sobre todo en los montes y en el litoral de Bizkaia. Destacan las rachas máximas del suroeste de los días 11 y 15, debido a situaciones sinópticas parecidas; profundas borrascas centradas en las inmediaciones de las Islas Británicas (Orduña 145.4 km/h, Oiz 115.6 km/h el día 11; Orduña 148.3 km/h, Punta Galea 144 km/h, La Arboleda 134.3 km/h, La Garbea 130 km/h el día 15). En la segunda quincena, los vientos han sido flojos y de dirección variable, al quedar el País Vasco frecuentemente bajo puentes anticiclónicos o en situaciones barométricas poco definidas.

URTARRILA

Urtarrileko lehen hamabostaldian, egoera sinoptikoa, mendebaldeko zirkulazioaren menpe egon zen. Antizikloi subtropikalaren iparraldeko ertzetik depresiogune ugari igaro ziren eta, oro har, prezipitazio arina, haize handiko egunak eta itsaso zakarra eragin zuten. Hilaren 18tik aurrera presio altuak Iberiar penintsulan finkatu, eta giro lehor eta eguzkitsuagoa eragin zuten, goizaldean behe-lainoa sarri sortu zen arren. Dorsal antiziklonikoak tenperaturaren pixkanakako gorakada eragin zuen, batez ere lurraldearen barnealdean. Hilabeteko azken astean, egonkortasuna izan genuen, kontinentean atlantikoko antizikloi polarra ezarri baitzen.

Urtarrilean, prezipitazioaren banaketa espazialak alde nabariak utzi zituen; Araba gehiengoan eta Bizkaia barnealdean oso lehorra izan zen hilabetea. Ekialdeko eskualdeetan normala izan zen, baina batez bestekoaren azpitik geratu zen. Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatu zen euri kopuru gehien (Andoain 111 mm eta Oiartzun 158 mm). Jarraian Bizkaia kostaldeko beste bi estazio ditugu (Bermeo 95 mm eta Muxika 88 mm). Barnealdean, ordea, euri gutxiago pilatu zen (Zanbrana 22 mm eta Paganos 18 mm). Hilaren 12an zaparrada gogorak bota zituen Oiartzungo behatokian (47.2 mm). Hilaren 11n eta 15ean, prezipitazioak lurralde ia denera zabaldtu ziren, eta kantauri isurialdean 20 mm-tik gora pilatu ziren. Dena den, garrantzi txikiko gertakariak izan ziren azken hauek.

Tenperatuari dagokionez, urtarrila hilabete oso epela izan zela esan daiteke. Kostaldean, batz bestekoa 11°C-ren bueltan ibili zen, eta Arabako Lautadan 6-7°C ingurukoa, ohiko datuak baino 1.5 °C gorago. Urtea izotzarekin hasi genuen lurralde osoan, kostaldean ezik. Urteko lehen egunean, gauez gertatu zen irradiazio gogorrari esker, tenperatura minimo absolutuak gertatu ziren (Navarrete -9,5 °C eta Agurain -8.4 °C). Hilabetearen lehen partean, itsasaldeko haizeak, aire masa epelak bidali zituen eta bigarren partean, presio altuei esker tenperatura maximoak epel antzean izan ziren. Honela, hilaren 6an, 20an, eta 21ean 20°C-tik gorako tenperatura izan genuen kostaldeko zenbait eremuetan.

Lehen hamabostaldian mendebaldeko fluxua nagusitu zen, haizeak askotan ufada oso zakarrekin jo zuen haizeguneetan, batez ere mendi inguruetan eta Bizkaiko kostaldean. Aipagarriak dira, hilak 11 eta 15eko hego-mendebaldeko haize boladak. Bi kasu horietan, Britainia Uharteetan gunea zuten depresigune sakonek eragin zituzten (hilak 11, Orduña 145.4 km/h, Oiz 115.6 km/h eta hilak 15, Orduña 148.3 km/h, Punta Galea 144 km/h, La Arboleda 134.3 km/h, La Garbea 130 km/h). Bigarren hamabostaldian, norabide aldakorreko haize ahula ibili zen, EAE-an zubi antizikloikoen eraginpean edo aintzira barometrikoaren menpe geratu baitzen askotan.

FEBRERO

Comienza el mes de febrero con precipitaciones débiles debido al paso de sistemas frontales asociados a borrascas atlánticas. La configuración sinóptica evoluciona rápidamente hacia una situación en omega, un tipo de bloqueo anticiclónico, debido al ascenso del anticiclón subtropical con dorsal hacia Europa occidental y descuelgue de bajas secundarias a ambos lados de la Península Ibérica. Se trata de una situación muy persistente, que aporta una gran estabilidad atmosférica. El tiempo asociado ha sido seco y soleado, con frecuentes nieblas y brumas en valles del interior. A lo largo de la última semana se recupera la circulación zonal. El paso de una borrasca por la Península Ibérica, con vaguada en altura, deja precipitaciones moderadas.

Febrero se ha comportado como un mes muy seco en todo el territorio. En buena parte del territorio ha llovido por debajo del 30 % de lo esperable, y los acumulados alcanzados se encuentran próximos a las efemérides. Por ejemplo, en San Sebastián se han registrado 26 mm, lejos de los 124 mm de media. Cuesta encontrar aquí registros para este mes por debajo de 30 mm, tan sólo 3 desde mediados del s. XX. Los pluviómetros más próximos a la costa de Bizkaia son los que más agua han recogido (Almike 94.5 mm, La Arboleda 71 mm, Muxika 45 mm), mientras que los del valle del Ebro rondan tan sólo los 20 mm. La lluvia se ha concentrado a principios y a finales del mes, en cualquier caso, eventos de precipitaciones débiles.

En cuanto a las temperaturas, febrero puede calificarse como un mes muy cálido, próximo también a las efemérides (el más cálido se registró el año 1990; el actual se asemeja a los de 1997 y 2007). La media en la costa se ha acercado a los 13 °C, y en la Llanada Alavesa ha superado los 7 °C, con unas diferencias respecto al promedio del periodo 1971-2000 de 3 °C y 2 °C respectivamente. El día 23, con la dorsal anticiclónica subtropical encima de la Península Ibérica y el reforzamiento del viento sur debido a una baja desprendida al SW de Portugal, tienen lugar los valores más elevados (Zizurkil 24.6 °C, Sodupe-Herrerias 24 °C, Mungia 23.7 °C, Deusto 23.6 °C). Destacan también los registros alcanzados en el interior. Así, en Vitoria-Gasteiz se alcanzan los 20 °C, circunstancia que tan sólo ha ocurrido en cuatro ocasiones en el periodo 1971-2000. Las temperaturas mínimas se producen durante la segunda semana (Salvatierra, -4.9 °C el día 11), con el anticiclón en superficie más retirado hacia centroeuropa. Las heladas han sido, en general, de carácter débil.

La componente sur del viento ha sido la predominante a lo largo de este mes de febrero. En ocasiones ha soplado con cierta intensidad, como los días 17 y 18, debido a la presencia de un centro de bajas presiones frente a las costas de Portugal. Destacan los 120.2 km/h del día 18 en Navarrete, una zona no expuesta (Oiz 127.4 km/h, Zaldiaran 115.6 km/h, Zizurkil 109.8 km/h). El día 3 se registran también rachas máximas muy fuertes en zonas de montaña, puntualmente huracanadas, esta vez de componente oeste, asociadas a una borrasca centrada en las Islas Británicas (Jaizkibel 123.1, Oiz 118.8 km/h).

OTSAILA

Otsaila hasieran, Atlantikoan jatorria zuten depresioei lotutako fronte sistemek euri arina utzi zuten. Antizikloiak blokeo egoera eragin, eta egoera sinoptikoak omega formarantz egin zuen. Honela, antizikloi subtropikalaren dortsala Europa mendebaldera zabaldu zen eta Penintsularen bi alboetara bigarren mailako depresioak eratu ziren. Egoera iraunkorra izan zen eta egonkortasun atmosferiko handia eragin zuen. Honi lotuta eguraldi lehorra eta eguzkitsua izan zen, eta barnealdeko haranetan behe-lainoa eta lanbroa sortu zen sarritan. Azken astean mendebaldeko zirkulazioa nagusitu zen eta depresio batek Penintsula zeharkatu zuen, goi geruzetan ibar batekin prezipitazio ertainak eragin zituen.

Otsaila hilabete oso lehorra izan zen lurralde osoan. Lurraldearen gehiengoan, espero zitekeena baino %30 baino euri gutxiago jaso zen. Donostian adibidez, 26 mm besterik ez zen pilatu, batez beste 124 mm pilatzen da. Datuei erreparatuz gero, XX. mendeko bigarren erdialdetik hona hirutan soilik gertatu da 30 mm baino ur gutxiago jasotzea. Bizkaiko kostaldetik gertuen dauden plubiometroek pilatu zuten euri gehien (Almike 94.5 mm, La Arboleda 71 mm eta Muxika 45 mm). Ebro bailaran, aldiz, 20 mm inguru pilatu zen. Euria, batez ere hilabetearen hasieran eta amaieran egin zuen, edozein modutan prezipitazio arina izan zen.

Temperaturari dagokionez, otsaila oso epela izan zela esan daiteke, epelenetakoa hain zuzen ere (epelena 1990. urtekoa izan zen, baina oraingo hau, 1997 eta 2007 urtekoaren parekoa izan zen). Kostaldean, batez bestekoa 13°C-tik gertu ibili zen eta Arabako Lautadan 7°C-tik gora. 1971-2000 datuekin konparatuz 3 edo 2°C-ko aldea dago, hurrenez hurren.

Hilaren 23an, antizikloi subtropikalaren dortsala penintsularen gainean kokatu zen, eta Portugal hego-mendebaldean zegoen depresioegune isolatuak, hegoaldeko haizea indartu zuen gurean, ohikoa baino temperatura altuagoa eragin zuen (Zizurkil 24.6 °C, Sodupe-Herrerias 24 °C, Mungia 23.7 °C eta Deusto 23.6 °C). Adierazgarria da barnealdean lortutako temperatura altua ere. Gasteizen 20 °C-ra iritsi zen termometroa, 1971-2000 epealdian lau bider gertatu dena, soilik. Temperatura minimoak bigarren astean eman ziren (Hilaren 11n, Agurain -4.8 °C) antizikloia Europa erdialdera mugitzearekin batera. Oro har, izozteak ez ziren garrantzitsuak izan.

Otsailean hegoaldeko haizea izan zen nagusi. Zenbait egunetan, hilaren 17an eta 18an kasu, indartsu ibili zen, Portugaleko kostaldean kokatutako depresioa zela eta. Adierazgarria da, hilaren 18an, Navarreten neurtutako 120.2 km/orduko ufada (Oiz 127.4 km/h, Zaldiaran 115.6 km/h eta Zizurkil 109.8 km/h). Hilabeteko 3. egunean, Britainiar uharteetan kokatutako depresio gune batek mendebaldeko haize zakarra eragin zuen. Mendi inguruetan, haize-bolada oso gogorak neurtu ziren, tarteka bortitzak (Jaizkibel 123.1 km/h eta Oiz 118.8 km/h)

MARZO

A lo largo del mes de marzo ha predominado la circulación del oeste. El anticiclón de las Azores se ha encontrado algo retirado, permitiendo el paso sobre el norte peninsular de familias de borrascas atlánticas que han procurado un tiempo lluvioso. Alguna de ellas ha sido bastante profunda, como la del día 10 (de 946 mb), que dio lugar a un fuerte oleaje. Bajo esta situación, destacan también las precipitaciones muy abundantes del día 27 en la vertiente cantábrica. A mediados de mes la dorsal subtropical invade la Península, con débil gradiente de presión en superficie. Tiene lugar entonces el periodo más estable y las temperaturas más elevadas. La situación es bien distinta a partir del día 21. El anticiclón de las Azores se extiende hacia el polo, configurando una situación de bloqueo, mientras que una gran vaguada introduce sobre Europa una masa de aire muy frío. El intenso flujo del norte guía distintos sistemas frontales y deja tres días de precipitaciones muy abundantes, de nieve en cotas relativamente bajas.

Ha habido un gran número de días de lluvia, repartidos a lo largo de todo el mes, aunque es en la segunda quincena cuando suceden varios días de acumulados muy abundantes. En concreto, del 22 hasta el 24 se producen precipitaciones persistentes, débiles en su mayoría, con acumulados diarios por encima de los 50 mm en puntos del interior de la vertiente cantábrica, y una cota de nieve que llega a bajar de manera puntual hasta los 200 m. Lejos de remitir, las precipitaciones vuelven a ser muy abundantes el día 27 en Gipuzkoa y oeste de Bizkaia.

En cuanto a la temperatura, marzo puede considerarse como un mes normal, con matices cálidos. La media mensual ha rondado los 11 °C en la costa y los 7 °C en la Llanada Alavesa, valores que en la vertiente cantábrica se asemejan a los observados el pasado enero y muy por debajo de los experimentados en febrero. En la evolución temporal se identifican claramente las dos incursiones de aire frío, una a principios y otra a finales del mes, centradas en los días 4 y 23, siendo este último día el más frío. Previa a ellas, jornadas muy templadas, en las que tienen lugar las máximas, por encima de 26 °C el día 14 en puntos del interior de la vertiente cantábrica (Mungía y Deusto 27.1 °C, Sodupe 27.7 °C, Amorebieta 27 °C). En definitiva, temperaturas muy variables, típico de un mes de transición como es marzo.

Han predominado los flujos marítimos del cuarto cuadrante. Se han producido numerosos episodios de viento muy fuerte repartidos a lo largo de todo el mes. Destacan las rachas alcanzadas con las advecciones del norte de los días 4 (Bidania 113 km/h, Jaizkibel 110.2 km/h) y 24 (Oiz 120.2 km/h, Jaizkibel 98.6 km/h); también las originadas por el paso de borrascas atlánticas, con rachas del oeste el día 10 (Orduña 119.9 km/h, La Arboleda 107.3 km/h) y del noroeste el 27 (Oiz 118.1 km/h, La Garbea 112 km/h).

MARTXOA

Martxoan mendebaldeko haizea izan zen nagusi. Azoreetako antizikloia urrun samar egon zen gurengandik, eta Atlantikotik depresio ugari hurbildu ziren. Hauetako depresio batzuk sakonak izan ziren, hilaren 10ekoa kasu (946 mb) eta itsasoan olatu handiak eragin zituen. Egoera sinoptiko berdinarekin, otsailaren 27an, kantauri isurialdean euri ugari pilatu zen. Hilabetearen erdialdean, antizikloi subtropikalaren dortsalak Iberiar Penintsula hartu zuen bere gain, eta azalean presio gradiente txikia izan zen. Orduan, giroa egonkorra izan zen eta hilabeteko tenperatura altuenak neurtu ziren. Hilak 21etik aurrera, bestelako egoera izan zen. Azoreetako antizikloia polora luzatu, eta blokeo egoera bat sortu zen, bitartean aska sakon batek Europara aire masa oso hotza sartu zuen. Iparraldeko fluxuak, fronte desberdinak bideratu eta hiru egunez euri ugari, eta elur maila jaitsarazi zuen.

Martxoak, euri-egun ugari izan zituen hilabete osoan sakabanaturik, baina bigarren hamabostaldian kontzentratu ziren pilaketa handieneko egunak. Zehazki, 22etik eta 24ra, etengabe egin zuen, baina oro har, arina izan zen prezipitazioa. Hala, Kantauri isurialdeko barnealdean eguneko 50 mm baino gehiago pilatu zen eta elur-maila, puntualki, 200 m-ra jaitsi zen. Hurrengo egunetan ere, euria egiten jarraitu zuen, eta hilaren 27an Gipuzkoan eta Bizkaia mendebaldean prezipitazio oso ugaria izan zen.

Temperaturari dagokionez, martxoa hilabete normaltzat jo daiteke, baina ñabardura epelekin. Hilabeteko batez bestekoa, kostaldean, 11°C inguruan ibili zen, eta Arabako Lautadan 7°C-ren bueltan. Kantauri isurialdeko kasuari erreparatuz, martxoa urtarrila antzekoak izan ziren tenperaturari dagokionez. Otsaila, aldiz, epelagoa izan zen martxoa baino. Hilabetearen bilakaeran nabariak dira, iparraldeko aire hotzaren bi sarrera, bata hilabetearen hasieran eta bestea amaieran, hilaren 4 eta 23an, hain zuzen ere. Halaxe, azken hau izan zen hilabeteko egunik hotzena. Aurretik, eguraldi epeleko egunak izan ziren, hilaren 24ean kantauri isurialdean termometroa 26 °C-ren gaintik geratu zen (Mungia eta Deusto 27.1 °C, Sodupe 27.7 °C eta Amorebieta 27 °C). Azken finean, martxoan tenperatura aldakorra izan zen, sasoi honetan ohikoa izaten dena.

Ipar-mendebaldeko haizea izan zen nagusi eta muturreko egoera ugari eragin zituen: hilaren 4ean (113 km/h Bidania, 110.2 km/h Jaizkibel) eta 24ean (120.2 km/h Oiz, 98.6 km/h jaizkibel); hilaren 10ean (119.9 km/h Orduña, 107.3 La Arboleda) eta hilaren 27an (118.1 km/h Oiz, 112 km/h La Garbea).

ABRIL

El primer día de abril encontramos el anticiclón de las Azores desplazándose hacia el Golfo de Bizkaia y una vaguada pasando por el norte peninsular. Una vez allí, dibuja una situación en omega, característico bloqueo anticiclónico, de manera que el resto de la semana el tiempo es seco y soleado. Las borrascas atlánticas de dicha omega acaban entrando en la Península Ibérica, inestabilizando la atmósfera y dejando a lo largo de la segunda semana chubascos aislados, destacando los del día 10 en la vertiente mediterránea. Restablecida la circulación zonal, una extensa borrasca fría, con varios centros secundarios y frentes asociados, se hace estacionaria en el Golfo de Bizkaia durante 5 días, desde el 17 al 21. Esta última jornada uno de dichos frentes se introduce por el cantábrico oriental, dejando chubascos moderados, más intensos en el litoral, y un acumulado muy abundante. La situación evoluciona hacia un anticiclón peninsular-europeo y a pantanos barométricos. El mes finaliza con una situación marítima zonal, asociada a depresiones atlánticas, que baja rápidamente los registros térmicos.

Las precipitaciones registradas califican el mes como normal, aunque con valores por debajo de la media. No obstante, respecto a los últimos años, es uno de los más lluviosos. Las zonas montañosas del interior de Gipuzkoa han sido las más húmedas, con acumulados entre 150-200 mm. Los días de lluvia se han repartido a lo largo de todo el mes y han sido numerosos. La precipitación máxima en 24 horas tiene lugar el día 1 en la comarca de Tolosa (Berastegi 61.2 mm). Más generalizadas son las precipitaciones del día 10, el más lluvioso en la vertiente mediterránea (Navarrete 40.7 mm, Iturrieta 38.5 mm, Subijana 35.1 mm). Para finalizar, señalar también las precipitaciones muy abundantes en la costa vizcaína del día 21 (Mungia 40.5 mm, Balmaseda 39.7 mm, Berriatua 30.5 mm, Derio 30.2 mm).

En cuanto a las temperaturas, abril puede calificarse como cálido, exceptuando la costa más occidental, muy cálida. La media mensual ha rondado los 13 °C en el litoral y los 10 °C en la Llanada Alavesa, casi 1.5 °C por encima de lo normal para el conjunto del territorio. Las temperaturas más elevadas; en concreto, el día 26 numerosas estaciones repartidas por todo el territorio registran valores próximos a los 30 °C (Sodupe 30.6 °C, Berna 30.3 °C, Subijana 30 °C, Llodio y Oiartzun 29.8 °C). Por otra parte, aunque el mes se despide con temperaturas por debajo de 0 °C en Herrera e Iturrieta, las heladas se han concentrado en la primera quincena, y se han reducido prácticamente al territorio alavés. La más intensa tiene lugar el día 15 (Iturrieta -5.9 °C, Navarrete -5.4 °C).

Debido a la gran variedad de situaciones sinópticas no ha habido un predominio claro de una determinada componente, aunque los vientos del tercer y cuarto cuadrante han sido los más frecuentes. El periodo más ventoso llega los días 17 a 21 al paso de borrascas por el Golfo de Bizkaia. Las rachas máximas, del SW, se registran el día 18 (Orduña 129.2 km/h, Herrera 114.8 km/h, Zegama 115.9 km/h).

APIRILA

Hilabeteko lehen egunean, Azoreetako antizikloia Bizkaiko Golkorantz mugitu zen, eta goi geruzetan, Penintsulako iparraldetik ibar bat igaro zen. Ondoren, omega formari erantzuten dion blokeo egoera antiziklonikoa gauzatu zen; aste osoz giro lehor eta eguzkitsua eragin zuen. Ozeano Atlantikoko depresioguneak blokeo egoera gainditu eta Penintsulan barneratu ziren, eguratsa ezegonkortuz; honela, bigarren astean han-hemenka zaparradak bota zituen. Egunik adierazgarriena, hilaren 10a izan zen, mediterranean isurialdean pilatu zen euria dela eta.

Hilaren 17tik 21era zirkulazio zonala berrezarri zen eta depresiogune hotz eta zabal bat geldikor geratu zen Bizkaiko Golkoan; presio baxuko azpiguneak eta fronteak zeramatzan loturik. Hilaren 21ean fronte horietako bat Kantauri Itsaso ekialdetik sartu, zaparrada ertainak bota (mardulak kosta partean) eta euri kopuru handia pilatu zen. Ondoren, Penintsulan zein Europan presio altuak eta aintzira barometrikoko egoerak ezarri ziren. Hilabetea Ozeano Atlantikoko depresioguneen presentziarekin eta, beraz, tenperaturaren beherakada nabarmenarekin amaitu zen.

Pilatutako prezipitazioa kontutan hartuta, normaltzat jo daiteke apirila, baina batez besteko baliotik behera geratu zen. Hala ere, aurreko urteekin konparatuz gero euritsuenetariko bat izan zen 2008ko apirila. Gipuzkoa barnealdeko mendiak izan ziren eremu hezeenak, 150-200 mm pilatu ziren. Euri-egunak ugariak izan ziren eta hilabete osoan sakabanatu ziren. Hilaren 1ean Tolosaldean jaso zen 24 ordutan pilatutako prezipitazio kopuru handiena (Berastegi 61.2 mm). Hilaren 10ean euria leku gehiagotan egin zuen eta Mediterranean isurialdean egunik euritsuena izan zen (Navarreta 40,7 mm, Iturrieta 38.5 mm, Subijana 35.1 mm). Aipagarria da Bizkaiko kostaldean, hilaren 21ean jaso zen ur kopurua, prezipitazioa oso ugaria izan zen (Mungia 40.5 mm, Balmaseda 39.7 mm, Berriatua 30.5 mm, Derio 30.2 mm).

Temperaturari dagokionez, apirila hilabete epela izan zen, eta mendebaldeko kostaldean oso epela izan zela esan dezakegu. Hilabeteko batez bestekoa, kostaldean 13 °C-koa izan zen eta Arabako Lautadan 10 °C-koa, normaltzat jotzen dena baino ia 1.5 °C gorago lurralde osoan. Temperatura altuenak, hilaren 26an neurtu ziren; lurralde osoan sakabanatutako behatoki ugari 30 °C inguru neurtu zituzten (Sodupe 30.6 °C, Berna 30.3 °C, Subijana 30 °C, Laudio eta Oiartzun 29.8 °C). Hilabetea zeropeko balioekin amaitu bazen ere (La Herrera eta Iturrieta) izozte-egun gehienak lehen hamabostaldian izan ziren, eta Arabara mugatu ziren. Izozte-egun gogorrena hilaren 15a izan zen (Iturrieta -5.9 °C, Navarrete -5.4 °C).

Egoera sinoptikoa aldakorra izan zenez, haizea norabide finkorik gabe ibili zen. Hala ere, hirugarren eta laugarren koadranteko norabideak izan ziren nagusi. Bizkaiko Golkotik igaro zen depresiogune baten eskutik, hilaren 17tik 21era bitarteko egunak izan ziren haizetsuenak. Haize ufada bortitzenak hego-mendebaldetik etorri ziren, hilaren 18an (Orduña 129.2 km/h, Herrera 114.8 km/h, Zegama 115.9 km/h).

MAYO

Comienza mayo a nivel sinóptico con débiles gradientes de presión en superficie y bajas de origen térmico sobre la Península. En altura la dorsal anticiclónica comienza a penetrar sobre el Mediterráneo occidental, enviando flujos del SW sobre nuestro territorio. En esta primera semana se registran las temperaturas más altas. El resto del mes el tiempo ha estado caracterizado por circulaciones aisladas de la corriente general, de masas de aire marítimas polares, desprendidas de su zona manantial al sur de Groenlandia. Sobre la Península o en sus inmediaciones diversas depresiones frías han mantenido un ambiente templado y han aportado una gran inestabilidad atmosférica, con frecuentes chubascos de carácter tormentoso. Destaca la del día 31, que se hace estacionaria sobre la mitad este de la Península, enviando flujos húmedos de componente norte sobre el cantábrico oriental. Aire frío en altura y el paso de un frente ocluido dejan precipitaciones muy abundantes.

Las precipitaciones registradas califican el mes de mayo como húmedo, llegando a extremadamente húmedo en la vertiente mediterránea, al superarse los valores de la efeméride de 1977. La distribución espacial dibuja máximos superiores a 200 mm repartidos por el este de Gipuzkoa, la zona de la divisoria principal de aguas y el sur de Álava. En buena parte de este territorio histórico la lluvia caída representa más del doble de la media; en los Valles Alaveses hasta tres veces más. Las cantidades más bajas, por debajo de 100 mm, en Bizkaia, concretamente en la comarca del Bilbao Metropolitano. Ha habido un gran número de días de precipitación, repartidos a lo largo de todo el mes. El 31 ha sido, con diferencia, el más lluvioso. Los valores más elevados se han dado en las cuencas altas de la vertiente cantábrica, especialmente en la comarca del Goierri (Agauntza y Amundarain 74 mm, Arrasate 64.3 mm, Mañaria 63.1 mm), también destacan los 79 mm registrados en La Arboleda. Los chubascos más intensos, no obstante, tienen lugar el día 18, con una baja atravesando el Golfo de Bizkaia y vaguada en altura (Ereñozu 29.6 mm/h, Añarbe 28.8 mm/h, Urkiola 25.3 mm/h). El régimen zonal que se instala posteriormente permite la entrada de una nueva depresión fría peninsular. Los días 23 a 25 el tiempo asociado es de inestabilidad generalizada, con chubascos fuertes acompañados de granizo, y precipitaciones muy abundantes el 24 (Elorrio 45.8 mm, San Prudentzio 42 mm, Urkulu 38 mm).

En cuanto a las temperaturas, este mayo se ha comportado de manera cálida. La media mensual ha rondado los 17 °C en el litoral y los 13 °C en la Llanada Alavesa, más de 1.5 °C por encima de lo normal para el conjunto del territorio. Las temperaturas más bajas se observaron el día 1, la última helada débil en las comarcas de la Montaña y Llanada Alavesa (Navarrete -2.2 °C, Iturrieta -0.6 °C, Salvatierra -0.3 °C). A partir de dicho día las altas presiones subtropicales elevan rápidamente los registros, sobre todo en la costa (Oiartzun 33 °C, Mungia 32.2 °C, Lasarte 31 °C el día 3).

La dirección del viento ha sido muy variable a lo largo del mes de mayo, con un cierto predominio de la componente oeste, en especial, flujos ibéricos del tercer cuadrante.

MAIATZA

Lurrazalean, presio gradiente txikiarekin eta Penintsulan gunea zuten depresio termikoekin hasi zen maiatza. Goi-geruzetan, Mediterraneo mendebaldean antizikloiaren dortsala kokatu zen eta gurera hego-mendebaldeko haizea bidali zuen. Hilabeteko lehen astean maiatzeko tenperatura altuenak neurtu ziren. Gainontzeko egunetan egoera sinoptikoa zirkulazio orokorretik isolatutako aire masa polarrek definitu zuten (depresiogune hauek Groenlandia hegoaldean izaten dute sorburua. Penintsulan eta hemendik gertu, depresio hotzek ezegonkortasun atmosferikoa sortu zuten eta maiz izan ziren zaparrada trumoitsuak. Aipagarrien hilaren 31koa izan zen; depresio hotza ia mugitu gabe geratu zen Iberiar Penintsularen ekialdean eta gure lurraldera iparraldeko fluxu oso hezea bidali zuen. Aire hotza zegoen goi-geruzetan eta fronte okluditu bat pasa zen gure lurraldetik; euria erruz gin zuen EAE guztian.

Hilabete osoan pilatutako prezipitazioa aztertuz gero, maiatza hilabete hezea izan zela esan dezakegu, eta are gehiago, mediterranean isurialdean oso hezea, 1977ko efemeridea gainditu zen. Banaketa espazialari erreparatuz gero, 200 mm-tik gorako pilaketak izan ziren Gipuzkoa ekialdean, isurialde-banalerroan eta Araba hegoaldean. Azken honi dagokionez, batez bestekoaren bikoitza pilatu zen, eta Arabako bailaretan hirukoitza. Euri kopuru gutxien pilatu zen eremua, eta, hortaz, zaparrada trumoitsuaren bidetik kanpo geratu zena, 100 mm-tik beherako pilaketekin Bizkaia izan zen; Bilbo Handiaren ingurua, hain zuzen.

Euri-egunak ugariak izan ziren eta hilabete osoan sakabanatu ziren. Hilaren 31a izan zen egunik euritsuena. Kantauri isurialdeko goi arroetan pilatu zen gehien, batez ere Goierriko eskualdean (Agauntza eta Amundarain 74 mm, Arrasate 64.3 mm, Mañaria 63.1 mm), aipatzekoa da ere La Arboledako datua: 79 mm. Zaparrada mardulenak, aldiz, hilaren 18an bota zituen, depresiogune batek Bizkaiko Golkoa gurutzatu eta atmosferako goi geruzetan ibarra kokatu zenean (Ereñozu 29.6 mm/h, Añarbe 28.8 mm/h, Urkiola 25.3mm/h). Ondorengo egunetan, mendebaldeko fluxua ezarri zen eta Penintsulara depresio berri bat hurbildu zen. Hilaren 23tik 25a bitartean, egoera ezegonkorra izan genuen, txingorra eta zaparrada mardulak bota zituen, eta hilaren 24an prezipitazioa oso ugaria izan zen (Elorrio 45.8 mm, San Prudentzio 42 mm, Urkulu 38 mm).

Tenperaturari dagokionez maiatza epela izan zela esan dezakegu. Hilabeteko batez bestekoa, kostaldean 17 °C inguruan ibili zen eta Arabako Lautadan 13 °C-ren bueltan. Ohikoa dena baino 1.5 °C gorago. Tenperatura baxuenak hilabeteko lehen egunean neurtu ziren. Honek, mendi inguruan eta Arabako Lautadan azken izozte-eguna suposatu zuen (Navarreta -2.2 °C, Iturrieta -0.6°C, Agurain -0.3°C). Egun horretatik aurrera antizikloi subtropikala gure latitudeetara luzatu eta tenperaturak gora egin zuen, batez ere kostaldean (hilaren 3an: Oiartzun 33°C, Mungia 32.2°C, Lasarte 31°C).

Haizearen norabidea oso aldakorra izan da maiatzean, hala ere, mendebaldekoa nabarmendu da, penintsula barrenetik datorren hego-mendebaldeko haizea, hain zuzen ere.

JUNIO

Comienza junio con una depresión fría peninsular. La acusada inestabilidad y un frente ocluido estacionario sobre el País Vasco dejan precipitaciones muy abundantes y localmente fuertes, provocando avenidas en numerosos puntos de la vertiente cantábrica. El resto de esta primera semana el predominio es para el anticiclón de las Azores, que entra en cuña sobre el Golfo de Bizkaia, y la baja térmica peninsular. En la segunda, se une a otros anticiclones atlánticos, formando una situación de bloqueo y enviándonos flujos marítimos. Al mismo tiempo, una nueva depresión aislada en niveles altos (DANA) vuelve a provocar chubascos de carácter convectivo de intensidad fuerte y acumulados muy abundantes. Tras su relleno, se recupera la circulación zonal, que guía una depresión sobre el Golfo de Bizkaia, con varios frentes asociados. Así, los días 16 y 17 la inestabilidad es generalizada, sobre todo en la vertiente cantábrica. A partir de entonces, la Península Ibérica queda bajo la influencia de la dorsal anticiclónica, En superficie, el predominio vuelve a ser para el anticiclón de las Azores.

Las precipitaciones registradas califican el mes de junio como muy húmedo. La distribución espacial muestra máximos superiores a 200 mm en Añarbe 202 mm y en el noroeste del territorio (La Arboleda 218 mm, Sodupe-Herrerias 201 mm). Aquí y en zonas de Álava el volumen de precipitación representa el doble de la media. Buena parte de dicha precipitación se corresponde con el episodio del día 1, en el que se registraron los valores máximos en 24 horas. En concreto, en torno a los 100 mm en puntos del Bilbao Metropolitano y Plentzia-Mungia (Deusto 124.7 mm, Mungia 96.3 mm), y de 80 mm en las comarcas limítrofes. Además, la intensidad de precipitación fue localmente fuerte, sobre todo en el litoral vizcaíno (Oleta 29 mm/h, Berriatua 27.8 mm/h). Más intensas fueron, no obstante, las del día 16, que afectaron fundamentalmente a la comarca del duranguesado: en la estación de Urkiola los chubascos fueron muy fuertes (36.7 mm/h), y fuertes en estaciones no muy lejanas (Aixola 29.7 mm/h, Elorrio 27.3 mm/h, Arkaute 26.2 mm/h).

Junio se ha comportado como un mes cálido. La media mensual ha rondado los 18 °C en el litoral y los 16 °C en la Llanada Alavesa, entre 0.5-1 °C por encima de lo normal. Durante la primera quincena temperaturas, en general, por debajo de la media y muy homogéneas. En la segunda, temperaturas cálidas, destacando sobre todo las del día 21, en el que se alcanzan las máximas del mes, los valores más altos se dan en los valles cantábricos (Lasarte 36.6 °C, Alegia 36.5 °C, Berna 36.3 °C).

En cuanto al viento, ha predominado la componente norte, especialmente durante la primera quincena del mes. Más flojos y variables en la segunda, aunque es en esta cuando se producen los valores más elevados: rachas muy fuertes del noroeste el día 16, debido al paso de una borrasca por el Golfo de Bizkaia (Zegama 90 km/h, La Garbea 87.5 km/h, Oiz 77 km/h, Bermeo 75.6 km/h).

EKAINA

Ekaina, Penintsulan gunea zuen depresio hotz batekin hasi zen. Ezegonkortasuna handia izan zen, eta gainera EAEan fronte okluditu bat geldikor geratu zen. Honen ondorioz, euria erruz egin zuen, zaparrada gogorak bota zituen eta kantauri isurialdeko ibai askok gainezka egin zuten. Lehen aste honetako gainontzeko egunetan Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen Bizkaiko Golkoan eta Iberiar Penintsulan beroaren eraginez depresioegune bat eratu zen. Bigarren astean Azoreetako antizikloia Ozeano Atlantikoko beste antizikloi batzuekin lotu zen eta blokeo egoera bat sortu zuten; gure lurraldera itsasaldeko fluxuak iritsi ziren. Aldi berean, goi geruzetan depresioegune isolatu bat eratu zen eta konbekzioari erantzunez zaparrada oso gogorak bota zituen; prezipitazioa oso ugaria izan zen. Ondoren, goi geruzetako depresioegunea desagertuz joan zen eta mendebaldeko fluxua berrezarri zen. Bizkaiko Golkora depresioegune bat eta honi loturiko fronte batzuk sartu ziren. Hilaren 16an eta 17an ezegonkortasuna nagusitu zen, batez ere kantauri isurialdean. Ordutik aurrera, Iberiar Penintsula antizikloiaren dortsalaren eraginpean geratu zen. Azalean, Azoreetako antizikloia nagusitu zen berriro.

Hilabetean jasotako euri kopuruaren arabera, ekaina hilabete oso hezetzat har dezakegu. Banaketa espazialari erreparatuz gero, ur gehiena (200 mm-tik gora) Añarben (202 mm) eta lurraldearen ipar-mendebaldean pilatu zen (La Arboledan 218 mm eta Sodupe-Herreriasen 201 mm). Aipatutako lekuetan eta Arabako zenbaitetan ohikoa den kopuruaren bikoitza pilatu zen. Hilabeteko lehen egunari dagokio 24 ordutan jasotako ur kopuru handiena; 100 mm inguru jaso ziren Bilbo Handiaren inguruan eta Plentzia-Mungia eskualdean (Deusto 124.7 mm, Mungia 96.3 mm) eta inguruko eskualdeetan 80 mm inguru pilatu ziren. Gainera, euri zaparradak zenbait lekutan gogorak izan ziren, batez ere Bizkaiko kostaldean (Oleta 29 mm/h, Berriatua 27.8 mm/h). Adierazgarriak dira, hilaren 16an Durangoko eskualdean botatako zaparradak; Urkiolako estazioan zaparrada oso gogorak bota zituen (36.7 mm/h) eta gogorak izan ziren inguruko estazio batzuetan (Aixola 29.7 mm/h, Elorrio 27.3 mm/h, Arkaute 26.2 mm/h).

Ekaina, hilabete epela izan zen. Hilabeteko batez bestekoa 18 °C-ren bueltan ibili zen kostaldean eta 16 °C-ren bueltan Arabako Lautadan. Normaltzat jotzen dena baino 0.5-1 °C gorago. Lehenengo hamabostaldian tenperaturan ez zen gorabehera handirik izan eta batez bestekoa balio normalaren azpitik geratu zen. Bigarren hamabostaldian, aldiz, tenperatura epelagoa izan zen. Hilaren 21ean neurtu ziren hilabeteko tenperatura maximo absolutuak; kantauri isurialdeko barneko bailaretan, hain zuzen (Lasarte 36.6 °C, Alegia 35.6 °C, Berna 36.3 °C).

Haizeari dagokionez, iparraldekoa izan zen nagusi, batik bat lehen hamabostaldian. Bigarrenean aldakor eta oro har, ahul ibili zen, hilabeteko bolada zakarrenak epe honetan neurtu baziren ere. Hilaren 16an, Bizkaiko Golkotik depresioegune bat pasa zen eta ipar-mendebaldeko haize-bolada oso gogorak eragin zituen (Zegama 90 km/h, La Garbea 87.5 km/h, Oiz 77 km/h, Bermeno 75.6 km/h).

JULIO

Durante las dos primeras semanas de julio el anticiclón de las Azores se ha encontrado algo retirado hacia el oeste, permitiendo el paso de borrascas atlánticas. El predominio de estas masas de aire polares marítimas ha dejado un ambiente fresco en la cornisa cantábrica. Hacia el día 12 dicho anticiclón subtropical comienza a ascender en latitud y a adentrarse con más claridad sobre el continente europeo. El flujo del norte que establece durante ese día y una vaguada en altura dan lugar a las precipitaciones más abundantes del mes, en cualquier caso, poco relevantes. Sobre el País Vasco la situación es de escaso gradiente, con flujos marítimos que siguen evitando las altas temperaturas. Éstas llegan a lo largo de la cuarta semana, debido al pinzamiento de aire cálido tropical continental desde el interior de Marruecos hacia la Península, que se cuele entre dos depresiones, una situada sobre el Atlántico y otra en Centroeuropa. El final del mes está marcado por una situación de pantano barométrico con una baja térmica sobre el centro de la Península.

La precipitación dibuja una cierta transición de valores muy secos en el interior de la vertiente cantábrica, a valores más próximos a lo normal en el sur de Álava. Exceptuando esta última zona y el este de Gipuzkoa, el resto del territorio presenta cantidades claramente por debajo del promedio. El día 12 es el más lluvioso. A él le corresponde buena parte del total mensual, especialmente en la vertiente mediterránea (Herrera 24.2 mm, Navarrete 21.5 mm, Oiartzun 22.1 mm).

Julio se ha comportado, en general, como un mes normal, en cuanto a las temperaturas se refiere. Cabe destacar que durante las tres primeras semanas el comportamiento ha sido de un mes frío, pero los últimos 10 días han colaborado en subir la media mensual hasta alcanzar un valor normal. Siendo el día 23 el más caluroso, registrándose la que es la temperatura más alta del año con 40.4 °C en Sodupe-Herrerías.

Han predominado los vientos flojos de componente norte y el régimen de brisas en el litoral. Los valores más elevados, rachas muy fuertes del oeste en el territorio vizcaíno, tienen lugar el día 4 al paso de una borrasca por el Golfo de Bizkaia (La Arboleda 86 km/h, Orduña 71.3 km/h) y el día 23 en áreas de tormentas en Álava (Zambrana 88.9 km/h, Zaldiaran 86.8 km/h, Vitoria-Gasteiz 83.9 km/h) y Bizkaia (Orduña 122 km/h).

UZTAILA

Uztaileko lehen bi asteetan Azoreetako antizikloia atzeratuta egon zen eta Ozeano Atlantikotik hurbiltzen joan ziren depresioeguneez ez zuten traba handirik aurkitu. Aire masa polar hauen eraginez, giro freskoa izan genuen kantauri isurialdean. Hilaren 12an, subtropikoko antizikloia iparralderantz mugitu eta Europan barneratzen hasi zen. Goi-geruzetan zegoen ibarrak eta lurrazalean nagusi zen iparraldeko haizeak hilabeteko prezipitazio oparoenak eragin zituzten, dena den, pilatutako ur kopurua ez zen esanguratsua izan. EAEan presio gradiente txikiarekin jarraitu genuen eta itsasaldeko haizearekin; beraz, giroa ez zen gehiegi epeldu. Laugarren astean tenperatura altuak neurtu ziren, Kontinente afrikarretik Iberiar Penintsulara aire masa bero eta lehorra sartu zenean; bi depresioeguneez artetik sartu zen: bat Ozeano Atlantikoan zegoen eta bestea Europa erdialdean. Hilabete amaieran aintzira barometrikoa nagusitu zen gurean eta beroaren eraginez depresioegune bat sortu zen Iberiar Penintsula erdian.

Prezipitazioaren banaketa espazialari dagokionez, gunee oso lehorrak ageri dira kantauri isurialdeko barnealdeko eskualdeetan. Hegoalderantz mugitu heinean gunee gero eta hezeagoak ageri dira eta Araba hegoaldean neurtutako balioak, balio normaletatik gertuago daude. Gipuzkoa ekialdea eta Arabako hegoaldea salbu, gainontzekoetan jasotako euri kopurua batez bestekoa baino dezente txikiagoa da. Hilaren 12a izan zen egunik euritsuena. Mediterraneoan isurialdean hilabete osoan jaso zenaren gehiengoa egun horretan jaso zen (24.2 mm Herrera, 21.5 mm Navarrete, 22.1 mm Oiartzun).

Temperaturari dagokionez uztaile hilabete normala izan da. Hala ere, hilabeteko lehen hiru asteak ohikoak baino hotzagoak izan ziren, eta hilabeteko azken hamar egunetan neurtutako tenperatura altuek, hilabeteko batez bestekoa, balio normaletara hurbildu zuten. Hilaren 23a izan zen egunik beroena eta urte osoko tenperatura altuena neurtu zen (40.4 °C Sodupe-Herrerias).

Iparraldeko haize ahula eta kostaldean brisa nagusitu ziren. Hilabeteko haize-bolada zakarrenak hilaren 4an neurtu ziren, Bizkaiko Golkotik depresioegune bat igaro zenean (86 km/h La Arboleda, 71.3 km/h Orduña). Hilaren 23an ere, ekaitz guneetan haize-bolada oso gogorak neurtu ziren: Araban (88.9 km/h Zambrana, 86.8 km/h Zaldiaran, 83.9 km/h Vitoria-Gasteiz) eta Bizkaian (112 km/h Orduña).

AGOSTO

La expansión de aire cálido tropical continental desde el Norte de África, con baja térmica relativa diurna en el interior de la Península, o situaciones de pantano barométrico, caracterizan el tiempo durante los primeros días de agosto. El calor viene acompañado de tormentas los días 5 y 6 debido al paso de una borrasca atlántica. Continúa el periodo estival bajo el dominio del anticiclón de las Azores. En ocasiones, entrando en el continente, favoreciendo la insolación, como los días 9 y 10. En otras, retirándose hacia el oeste y permitiendo el paso de borrascas atlánticas arrastradas por una intensa circulación zonal, bastante recurrente a lo largo de todo el mes, que han dejado algo de precipitación, sobre todo en la vertiente cantábrica, como la de los días 14 y 15. Finalizando el mes, una baja se sitúa frente a las costas de Portugal. El flujo ibérico da lugar a un repunte en las temperaturas. Al atravesar el norte peninsular aporta, además, algo de inestabilidad.

Las precipitaciones registradas califican el mes de agosto como seco, exceptuando el este de Gipuzkoa y de Álava, más próximas a lo normal. En cualquier caso, cantidades por debajo del promedio. Los días de lluvia se han repartido a lo largo de todo el mes. Destacan los chubascos fuertes de carácter tormentoso del 5 y 6, especialmente los de este último día (Zegama 28.8 mm/h, Aixola 26.8 mm/h, Amundarain 25.7 mm/h), en el que también se acumulan cantidades muy abundantes al este del territorio (Zegama 45.1 mm, Estanda 43.9 mm, Ereñozu 34.9 mm).

En cuanto a las temperaturas, agosto se ha comportado como un mes normal en el litoral y cálido en el interior. La media en la costa se ha situado en torno a los 20 °C, y en la Llanada Alavesa a los 19 °C, unas pocas décimas alrededor de lo normal. El día 30 puede considerarse el más caluroso del mes. En la vertiente cantábrica se alcanzan entonces los valores más altos (Alegia 36.3 °C, Lasarte 35.6 °C, Oiartzun 35.2 °C). En la vertiente mediterránea las jornadas más calurosas tienen lugar durante la primera semana (Zambrana 35.9 °C, Subijana 35.5 °C el día 5). El predominio de masas de aire polares marítimas durante la segunda quincena provoca varios días con registros por debajo de la media, sobre todo en el litoral. Las mínimas se registran el día 24, ayudadas por una intensa irradiación nocturna (Navarrete 3.1 °C, Salvatierra 4.5 °C).

Han predominado con claridad los flujos del cuarto cuadrante (N-W). Las situaciones de escaso gradiente han favorecido también los vientos locales y el régimen de brisas en el litoral. Los valores más elevados, rachas muy fuertes del oeste, tienen lugar los días 11 y 12 al paso de una baja secundaria por el Golfo de Bizkaia (Orduña 99.7 km/h, La Garbea 82.4 km/h). También muy fuertes son las producidas el día 5 en áreas de tormenta (Oiz 94.3 km/h, Zambrana 79.6 km/h, Navarrete 72 km/h).

ABUZTUA

Abuztuko lehen egunetan egoera aintzira barometrikoek edo beroaren eraginez Iberiar Penintsulan sortutako depresioguneek baldintzatu zuten, izan ere azken kasu hauetan Afrika iparraldetik Iberiar Penintsulara hedatutako aire masa tropikal lehorrak izan ziren nagusi. Giro beroaren eta Ozeano Atlantikotik hurbildu zen depresiogune baten eraginez, ekaitzak sortu ziren hilaren 5ean eta 6an. Ondorengo egunetan Azoreetako antizikloiaren menpe egon ginen. Batzutan Europan barneratzen zen antizikloia eta intsolazioa errazten zuen, hala nola, hilaren 9an eta 10ean. Beste batzutan, mendebalderago kokatzen zen antizikloia; orduan mendebaldeko zirkulazio indartsuak bultzatuta Ozeano Atlantikoko depresioguneak oso erraz iristen ziren gurera. Mendebaldeko zirkulazioa sarritan izan zen nagusi hilabete osoan eta euria ekarri zigun, batez ere kantauri isurialdera, esaterako hilaren 14an eta 15ean. Hilabete amaieran, depresiogune bat kokatu zen Portugalgo kostaldearen parean. Hegoaldeko fluxuak tenperatura igoarazi egin zuen berriro eta gainera, Iberiar Penintsularen iparraldea zeharkatzerakoan ezegonkortasun pixka bat eragin zuen.

Prezipitaziori dagokionez abuztua hilabete lehorra izan zen, Gipuzkoako eta Arabako ekialdeko eskualdeetan ezik, hauetan ohiko balioetatik gertuago ibili ziren, baina hala ere batez bestekotik behera. Euri-egunak hilabete osoan sakabanatu ziren. Aipagarriak dira, hilaren 5ean, eta bereziki 6an bota zituen zaparrada trumoitsu gogorrak (28.8 mm/h Zegama, 26.8 mm/h Aixola, 25.7 mm/h Amundarain); lurraldearen ekialdean ere prezipitazioa oso ugaria izan zen (45.1 mm Zegama, 43.9 mm Estanda, 34.9 mm Ereñozu).

Temperaturari dagokionez abuztua hilabete normala izan zen kostaldean eta beroa barnealdean. Kostaldean batez bestekoa 20 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 19 °C ingurukoa, ohiko balioen oso antzekoak. Hilaren 30a, hilabeteko egunik beroena izan zen. Egun hartan balio altuenak Kantauri isurialdean neurtu ziren (36.3 °C Alegia, 35.6 °C Lasarte, 35.2 °C Oiartzun). Aitzitik, mediterranean isurialdean tenperatura altuenak hilabeteko lehen astean neurtu ziren (hilaren 5ean: 35.9 °C Zanbrana, 35.5 °C Subijana). Lehen hamabostaldian itsasaldeko aire masa polarren sarrerak ugariak izan ziren eta tenperatura ohiko balioetatik behera geratu zen egun batzuetan, kostaldean batez ere. Hala ere, tenperatura minimoak hilaren 24an neurtu ziren, gauez gauzatu zen irradiazio gogorraren ondorioz (3.1 °C Navarrete, 4.5 °C Agurain).

Laugarren koadranteako haizeak, hots, ipar-mendebaldekoak gailendu ziren abuztuan. Presio gradiente eskaseko egoerek, lekuan lekuko haize erregimena ahalbidetu zuten eta kostaldean brisa. Haize-bolada zakarrenak hego-mendebaldetik etorri ziren, hilaren 11n eta 12an, Bizkaiko Golkotik igaro zen bigarren mailako depresio baten eskutik (99.7 km/h Orduña, 82.4 km/h La Garbea). Halaber, oso gogorrak izan ziren hilaren 5ean ekaitz guneetan neurtu ziren haize-boladak (94.3 km/h Oiz, 79.6 km/h Zanbrana, 72 km/h Navarrete).

SEPTIEMBRE

La situación sinóptica durante la primera quincena de septiembre se ha caracterizado por la alta subtropical de Azores retirada hacia el oeste y el frente polar muy ondulado, guiando borrascas en torno al paralelo 50°. A mediados de mes el anticiclón atlántico tiende a enlazar con el escandinavo, estableciendo una situación de bloqueo de la circulación del oeste. En este proceso se cuegan dos depresiones desprendidas. La primera de ellas, en su desplazamiento hacia Centroeuropa por el Cantábrico oriental provoca el día 12 las precipitaciones más abundantes del mes. La segunda se centra frente a las costas de Portugal y recorre el sur peninsular dejando un ambiente muy inestable. Mientras tanto, la cornisa cantábrica permanece bajo un tiempo seco y bastante soleado.

Septiembre ha sido un mes que puede calificarse, en general, como seco en el litoral y muy seco en el interior. Las cantidades más altas se han recogido en puntos próximos a la costa (Jaizkibel 126.5 mm, Mungia 95.9 mm, Bermeo 87.5 mm). En el otro extremo, la comarca de los Valles Alaveses (Subijana 11.9 mm, Vitoria-Gasteiz 13.2 mm). Los días de lluvia han sido pocos y se han concentrado fundamentalmente en la primera quincena. Los valores máximos diarios se producen el día 12, chubascos moderados que dan lugar a un acumulado muy abundante en algunos puntos del litoral (Mungia 45.7 mm, Oiartzun 30.7 mm). Los más intensos, no obstante, se registran el día 9, debido al paso de una vaguada con un sistema de frentes fríos activos (Saratxo 21.9 mm/h, Zaratamo 20.6 mm/h, Zaldiaran 19.9 mm/h, Derio 17.8 mm/h).

Las temperaturas se han comportado de manera fría. La media en la costa se ha situado por encima de los 18 °C, y en la Llanada Alavesa entre los 15-16 °C, unas pocas décimas por debajo de lo normal. Los valores más elevados se registran el día 8 en zonas próximas al litoral, con una vaguada al oeste de la Península y la expansión de aire cálido tropical continental desde el norte de África sobre la Península (Zarautz 35.2 °C, Sodupe 34.2 °C, Deusto 33.4 °C, Oleta 33 °C). En la mayor parte de la zona interior las máximas llegan dos días después (Igorre 32.7 °C, Orozko y Arrasate 32.4 °C). Las temperaturas más frías se producen con la advección del nordeste durante la última semana. Bajo esta situación y con el cielo despejado, los registros de cubetas y fondos de valle alaveses llegan a la helada (Navarrete -0.7 °C, Ozaeta -0.3 °C).

Durante la primera quincena han soplado fundamentalmente los flujos marítimos del cuarto cuadrante e ibéricos del segundo. A este último pertenecen los valores máximos: rachas muy fuertes, puntualmente huracanadas, el día 5, causadas por el paso de una borrasca atlántica con centro al sur de las Islas Británicas (Orduña 135.7 km/h, Oiz y La Garbea 111.6 km/h, La Arboleda 111.2 km/h). A mediados de mes soplan los flujos locales, con régimen de brisas en la costa, para acabar el mes con predominio de flujos continentales.

IRAILA

Irailaren lehen hamabostaldian Azoreetako antizikloi subtropikalak gunea mendebalderantz mugituta eduki zuen eta fronte polarra oso izurtuta egon zen; gauzak horrela, Ozeano Atlantikoko depresioguneak sarritan hurbildu ziren gure latitudera. Hilaren erdialdean Azoreetako eta Eskandinaviako antizikloiak bat egin zuten eta blokeo egoera gauzatu zen. Egoera hartan isolaturiko bi depresiogune sartu ziren Iberiar Penintsulan. Lehenengoak ekialderantz egin zuen, Kantauri Itsasoko ekialdetik Europa Erdialdera, eta bidean, hilaren 12an, gure lurraldean hilabeteko prezipitazio ugariak eragin zituen. Bigarrena, Portugalgo kostaldearen parean ipini zen lehenengo eta gero Iberiar Peninsularen hegoaldea zeharkatu zuen; giro oso ezegonkorra eragin zuen. Bitarte horretan, Kantauri isurialdean eguraldi lehor eta eguzkitsua izan genuen.

Iraila, orokorrean, kostaldean lehorra eta barnealdean oso lehorra izan zela esan dezakegu. Prezipitazio kopuru handienak kostaldetik gertu jaso ziren (126.5 mm Jaizkibel, 95.9 mm Mungia, 81.1 mm Oiartzun, 85.7 mm Bermeo). Aldiz, eremu lehorrena Arabako Lautada izan zen (11.9 mm Subijana, 13.2 mm Vitoria-Gasteiz). Euri-egunak urriak izan ziren eta batez ere lehenengo hamabostaldian izan ziren. Egunik euritsuena hilaren 12a izan zen: kostaldeko zenbait tokitan prezipitazio ertaina egin zuen eta pilatutako kopurua oso ugaria izan zen (45.7 mm Mungia, 30.7 mm Oiartzun). Hala ere, zaparrada gogorrenak hilaren 9an bota zituen, fronte hotz eraginkor batzuk berarekin zeramatzan ibar batek gure lurraldea zeharkatu zuenean (21.9 mm/h Saratxo, 20.6 mm/h Zaratamo, 19.9 mm/h Zaldiaran, 17.8 mm/h Derio).

Temperaturari dagokionez, iraila hilabete hotza izan zen. Kostaldean batez bestekoa 18 °C baino zertxobait altuagoa izan zen eta Arabako Lautadan 15 eta 16 °C artekoa, ohikoa baino hamarren batzuk baxuagoa. Temperatura altuenak hilaren 8an neurtu ziren kostaldetik gertu (35.2 °C Zarautz, 34.2 °C Sodupe, 33.4 °C Deusto, 33 °C Oleta); Iberiar Peninsularen mendebaldean ibar bat kokatu eta Afrika iparraldetik Iberiar Penintsulara aire bero eta tropikala ailegatu zenean. Barnealdeko eremu gehienetan temperatura altuenak handik bi egunetara neurtu ziren (32.7 °C Igorren, 32.4 °C Orozkon eta Arrasaten). Temperatura baxuenak azken astean neurtu ziren; ipar-ekialdeko haizea zebilen eta gauean zerua oskarbi geratu zen, gauzak horrela Arabako bailara sakonenetan izotz punturaino iritsi zen termometroa (Navarrete -0.7 °C, Ozaeta -0.3 °C).

Hilabeteko lehen hamabostaldian laugarren eta bigarren koadranteko haizea nagusitu zen. Hegoaldeko haizearekin neurtu ziren balio altuenak: haize-bolada oso gogorak eta zenbaitetan bortitzak hilaren 5ean, Britainiar uharteetan gunea zuen depresiogune bat igaro zenean (135.7 km/h Orduña, 111.6 km/h La Garbea eta Oiz, 111.2 km/h La Arboleda). Hilaren erdi aldera tokian tokiko haize erregimena eta kostaldean brisa nagusitu ziren. Hilabetearen amaieran, aldiz, ekialdeko fluxua gailendu zen.

OCTUBRE

El mes de octubre ha estado caracterizado por las altas presiones, aunque con distintas configuraciones. Comienza el mes con altas presiones sobre el Atlántico, que favorecen la entrada de flujo de componente norte durante los días 3 y 4, ayudados por una profunda borrasca sobre Centroeuropa. La segunda semana del mes predomina la circulación zonal, que permite el paso de algunos frentes. Los días sucesivos predominan las altas presiones sobre Centroeuropa, por lo que el flujo de componente sur se alterna con situaciones de pantanos barométricos y de varios embolsamientos de aire frío en altura (DANA) sobre el sur de la Península, que provocan precipitaciones abundantes en la mitad sur de la Península y en el Levante. La última semana del mes predominan los vientos de componente norte, tanto en las capas altas como en superficie. Esto provoca la primera entrada de aire frío de cierta consideración desde el día 27 hasta el final de mes.

Las precipitaciones registradas califican el mes de octubre como muy húmedo en la costa, y húmedo en el interior. En la vertiente cantábrica ha sido el octubre más húmedo de este siglo. Hasta siete han sido los días de precipitaciones muy abundantes registrados en la vertiente cantábrica. Los valores máximos diarios se han producido el día 21, con el paso de un largo y activo frente frío desde una depresión centrada frente a Escandinavia hasta latitudes subtropicales (La Arboleda 86.1 mm, Berriatua 62.1 mm, Matxitxako 52.2 mm). También destacan las precipitaciones recogidas entre las 12 h del día 27 y las 12 h del día 28, con 64.1 mm en Alzola, 55 mm en Berriatua y 47.9 mm en Oleta. La entrada de aire frío a partir del 27 provoca el primer episodio de nieve. La cota de nieve desciende hasta los 900-1000 m durante el día 28 y hasta los 800 m al día siguiente. El día 30 asciende, situándose por encima de los 1300-1400 m.

Las temperaturas se han comportado, en general, de manera fría. La media en la costa se ha situado en torno a los 15 °C, y en torno a los 11-12 °C en la Llanada Alavesa, unas décimas por debajo del promedio del periodo normal 1971-00. Se trata de valores muy similares a los del año pasado, los más bajos además de lo que llevamos de siglo. Aunque este año sí hemos tenido episodios de viento sur, la entrada de aire frío de la última semana ha sido un factor determinante para la obtención de la mencionada calificación. Los valores máximos absolutos se han registrado el día 5, superando los 25 °C en muchos puntos (Sodupe-Herrerías 28.6 °C, Zegama 28.1 °C, Deusto 27.9 °C). Se ha registrado un día de helada en la Llanada Alavesa, y hasta 3 en la estación de Navarrete.

La intensidad del viento no ha sido destacable y la dirección predominante ha sido la componente sur. Se han alternado jornadas con viento del sur-sureste (los primeros 10 días) con entrada de flujo de componente norte. Los últimos días ha predominado el viento de componente norte, con un cambio de viento durante las últimas horas del día 29, que provoca que la madrugada del 30 se registren, con viento del oeste-suroeste, las rachas más fuertes del mes (Kapildui 112.9 km/h, Treviño 83.3 km/h, Gasteiz 80.1 km/h).

URRIA

Urrian, oro har, presio altuen menpe egon ginen, baina konfigurazio sinoptiko ezberdinekin. Ozeano Atlantikoan presioa altuak eta Europa erdialdean depresiogune sakon bat zegoela hasi zen hilabetea, iparraldeko fluxu argiarekin hilaren 3an eta 4an. Bigarren astean, aldiz, mendebaldeko zirkulazioa izan zen nagusi eta fronte batzuen pasea ahalbideratu zuen. Ondorengo egunetan Europa Erdialdea presio altuen menpe geratu zen eta gurean hegoaldeko haizea eta aintzira barometrikoko egoerak tartekatu ziren. Penintsularen hegoaldean, aldiz, goi-geruzetan sortu ziren depresiogune hotz isolatuek, prezipitazio ugariak eragin zituzten Penintsularen hegoaldean eta ekialdean. Hilabeteko azken astean iparraldeko haizea nagusitu zen, lurrazalean zein goi-geruzetan. Egoera honek, hilaren 27tik aurrera aire hotzaren lehen sarrera garrantzitsua eragin zuen.

Prezipitazio datuei erreparatuz gero, urria kostaldean oso hezea eta barnealdean hezea izan zela esan dezakegu. Are gehiago, kantauri isurialdean mende hontako urririk hezeena izan zen. Kantauri isurialdean, euri pilaketa handiko zazpi egun zenbatu daitezke. Hilaren 21ean jaso ziren 24 orduetan pilatutako euri kopuru handienak, Eskandinavian gunea zuen depresio bati loturiko fronte luze eta sendo batek lurraldea zeharkatu zuenean (La Arboleda 86.1 mm, Berriatua 62.1 mm, Matxitxako 52.2 mm). Halaber, aipagarria da hilaren 27tik, (12:00-etatik UTC) hilaren 28ra (12:00-etara UTC) bitartean pilatutako euri kopurua (Altzola 64.1 mm, Berriatua 55 mm, Oleta 47.9 mm). Hilaren 27an aire hotzaren sarrerak, lehenengo elurtea eragin zuen. Hilaren 28an, elur-kota 900-1000 m inguruan kokatu zen, eta 29an 800 m-ra jaitsi zen. Hurrengo egunean gora egin zuen, 1300-1400 m-tik gora kokatuz.

Urria hilabete hotza izan zen. Kostaldean batez bestekoa 15 °C inguruan ibili zen eta Arabako Lautadan 11-12 °C inguruan, ohiko balioetatik (1971-2000) zertxobait behera. 2007ko urria bezala, hau ere hotza izan zen, biak XXI. mendeko hotzenak izanik. Hala ere, hegoaldeko haize-egunak ugariak izan ziren hilabetean zehar eta, hortaz, azken asteko aire hotzaren sarrera erabakigarria izan zen hilabeteko batez bestekoa normala baino beherago geratzeko. Tenperatura altuenak, hilaren 5ean neurtu ziren, lurraldeko eremu askotan 25 °C-tik gorako balioak neurtu ziren (Sodupe-Herrerias 28.6 °C, Zegama 28.1 °C, Deusto 27.9 °C, Oiartzun 26.9 °C, Saratxo 26.3 °C). Arabako Lautadan izozte-egun bakarra izan zen, Navarreten, aldiz, 3 zenbatu zitezkeen.

Hegoaldeko haizea izan zen nagusi eta, oro har, ez zen adierazgarria izan. Lehen hamar egunetan, hego/hego-ekialdeko haizea iparraldeko fluxuarekin txandakatu zen. Azken egunetan, aldiz, iparraldeko haizea gailendu zen. Hilaren 29ko azken orduetan eta 30eko goizaldean, haizeak mendebal/hego-mendebaldera egin eta hilabeteko ufada zakarrenak izan genituen (Kapildui 112.9 km/h, Trebiño 83.3 km/h, Gasteiz 80.1 km/h).

NOVIEMBRE

Comienza el mes de noviembre, sinópticamente hablando, con circulación desprendida sobre la Península. En superficie, dos depresiones se desplazan desde el Mediterráneo occidental hacia el Golfo de Bizkaia y Francia, respectivamente, estableciendo un claro flujo marítimo. En la segunda semana las altas presiones se instalan sobre la Península. A partir del día 11 la situación empieza a estar dominada por el anticiclón polar atlántico. Permanece unos días sobre el Golfo de Bizkaia y extendido hacia el continente. Después acaba reforzándose y manteniéndose estacionario en el océano, con centro en el paralelo 50º aproximadamente, de manera que la circulación sobre la Península es meridiana.

Debido a la variabilidad espacial de las precipitaciones registradas este mes se han obtenido calificaciones diferentes, desde muy húmedo en zonas de la vertiente cantábrica a normal en el interior de Álava. En el interior de Gipuzkoa se encuentran los valores más elevados, por encima de 400 mm en puntos como Berastegi, Añarbe o Bidania. En el otro extremo, cantidades por debajo de los 50 mm al sur de los Valles Alaveses. Han sido varios los días de precipitaciones muy abundantes. El día 2 afectan a toda la vertiente cantábrica, superándose los 60 mm en el noreste de Gipuzkoa (Leitzaran 72 mm, Añarbe 68.6 mm, Bidania 67.6 mm,); además, Párganos registra 51.5 mm, una cantidad poco frecuente en esta comarca alavesa. El día 5 el episodio se concentra en Gipuzkoa, con chubascos tormentosos de moderados a fuertes (Belauntza 73.2 mm y 25 mm/h, Bidania 65 mm y 10.5 mm/h). El día 24 el acumulado es muy abundante en prácticamente toda la vertiente cantábrica y el este de Álava, destacando el registrado en la comarca del Alto Deba (Aitzu 69.2 mm, Arrasate 67.3 mm, San Prudentzio 57.2 mm). Se producen, además, tormentas con granizo y nevadas moderadas en cotas superiores a los 600 m aproximadamente.

En cuanto a las temperaturas, noviembre puede calificarse como un mes frío en la costa más oriental y normal en el interior. El día 10 se alcanzan las temperaturas más altas del mes, en torno a 20 °C en puntos próximos al litoral. La última semana descienden las temperaturas, produciéndose entonces las mínimas, con heladas moderadas en cumbres de montaña (Iturrieta -9.8 °C)

La componente norte del viento ha sido la predominante a lo largo del mes de noviembre. Las rachas más intensas corresponden a la advección del norte de los días 23 y 24, establecida por el anticiclón polar atlántico y depresiones en las Islas Británicas: vientos muy fuertes, incluso huracanados, en zonas de montaña y puntos del litoral, con máximas en la madrugada del segundo día (Cerroja 131.6 km/h, Jaizkibel 119.2 km/h, Punta Galea 117 km/h, Oiz 116.6 km/h, Bermeo 106.2 km/h).

Como respuesta hidrológica a las lluvias causadas por la situación de cresta anticiclónica atlántica, el día 24 el nivel de la lámina de agua en la estación de Ibai Eder en la cuenca del Urola (1.138 m 22:30 h), y de Ereñozu en la cuenca del Urumea llegan a la categoría de inundación (1.883 m 12:50 h).

AZAROA

Penintsulako goi geruzetan kokaturiko aire hotz isolatuarekin hasi zen. Azalean, Mediterraneo mendebaldetik, Bizkaiko Golkora eta Frantziara bi depresio hurbildu ziren, itsasaldeko fluxu garbia ezarriz. Bigarren astean, presio altuak Iberiar Penintsulan finkatu ziren. Honela, hilaren 11tik aurrera Atlantikoko antizikloi polarraren eraginpean geratu zen kontinenteko eremu zabal bat, baita Bizkaiko Golkoa ere. Osterantzean, antizikloia indartu eta geldikor mantendu zen ozeanoan. Gunea 50º paraleloan zuela, Iberiar Penintsulan zirkulazioa meridianoa ezarri zen.

Prezipitazioaren banaketa desberdina izan zen leku batetik bestera. Kantauri isurialdean hilabete osoa hezea izan zen arren, Araba barnealdean azaroa hilabete normaltzat jo daiteke. Pilaketa handienak, Gipuzkoa barnealdean izan ziren; Berastegin, Añarben zein Bidanian 400 mm-tik gora pilatu zen. Beste muturrean, aldiz, pilaketa txikienak (50 mm-tik behera) Arabako Bailaren hegoaldean gertatu ziren. Euri kopuru handiko egun bat baino gehiago izan ziren. Hilaren 2an prezipitazioak oso ugariak izan ziren kantauri isurialde osoan, 60 mm gaindituz Gipuzkoa ipar-ekialdean (Leitzaran 72 mm, Añarbe 68.6 mm, Bidania 67.6 mm) Paganosen ere, Arabako eskualdean, 51.5 mm neurtu ziren, sarri gertatu ohi ez den pilaketa. Hilaren 5eko zaparrada mardul eta trumoitsuek, Gipuzkoan eragin zuten gehien (Belauntza 73.2 mm eta 25 mm/h, Bidania 65 mm eta 10.5 mm/h). Hilaren 24ean, oro har, kantauri isurialde osoan eta Araba ekialdean pilaketa handiak eman ziren baina balio adierazgarrienak, Deba Garaiko eskualdean erregistratu ziren (Aitzu 69.2 mm, Arrasate 67.3 mm, San Prudentzio 57.2 mm). Gainera trumoiak jo, txingorra bota eta 600 m-tik gora elurra izan zen.

Temperaturari dagokionez, azaroa, ekialdeko kostaldean hotza izan zela esan daiteke eta barnealdean normala. Hilaren 10ean, hilabeteko temperatura altuenak neurtu ziren, 20 °C ingurukoak kostaldean. Azken astean, temperaturak behera egin eta hilaren 26an neurtu ziren balio baxuenak, izozteekin mendi gailurretan (Iturrieta - 9.8 °C).

Iparraldeko haizea gailendu zen azaroan. Bolada zakarrenak, hilaren 23an eta 24an eman ziren, Atlantikoko antizikloi polarraren eta Britainiar Uharteetan kokaturiko depresioaren eraginpean, iparraldeko haizea zebilela. Egoera horrek, mendi inguruan eta kostaldean haize bolada oso gogorrek, eta tarteka bortitzak, eragin zituen. Bolada zakarrenak hilaren 24ko goizaldean neurtu ziren (Cerroja 131.6 km/h, Jaizkibel 119.2 km/h, Punta Galea 117 km/h, Oiz 116.6 km/h, Bermeo 106.2 km/h).

Era berean, aipagarria da ibaien ur emariaren jokaera, hilaren 24ean, Atlantikoko antizikloiaren dortsalaren eraginpean botatako euriaren erantzun gisa; Urolako arroan, Ibai ederreko estazioan (1.138 m 22:30 h) eta Urumeako arroan, Ereñozuko estazioan (1.883 m 12:50 h) uholde mailara iritsi ziren.

DICIEMBRE

La dorsal o cresta anticiclónica atlántica ha sido la protagonista a lo largo de buena parte del mes de diciembre. Esta situación ha favorecido la entrada de masas de aire frío del norte, que han dejado nevadas en cotas relativamente bajas. El día 19 se instalan las altas presiones sobre Europa occidental, de manera que la Península Ibérica se encuentra en una situación de escaso gradiente de presión, y propician un cambio notable en el tipo de tiempo respecto a jornadas anteriores: seco y soleado, acompañado de nieblas en zonas del interior. A finales de la cuarta semana, por el sur del extenso anticiclón atlántico-europeo, centrado sobre el mar del Norte, la circulación retrógrada introduce de nuevo una masa de aire frío, que da lugar a otro episodio de nieve en cotas bajas. El mes finaliza con una depresión atlántica al NW de la Península, que hace llegar vientos de procedencia sur, templando el ambiente.

El mes de diciembre puede clasificarse como húmedo, llegando a muy húmedo en buena parte de Gipuzkoa. En el interior de Gipuzkoa es donde se encuentran los acumulados más altos, por encima de los 250 mm. Los más bajos, en las comarcas del Ebro (Párganos 74 mm, Zambrana 79 mm), cantidades también importantes para estas zonas. Las precipitaciones diarias no destacan por su volumen, lo hacen más bien por su persistencia y por ser en forma de nieve en cotas relativamente bajas hasta en cuatro episodios (días 1 y 2, 9 a 11, 13 a 15, 26 y 27), convirtiendo a este meteoro en uno de los protagonistas de este diciembre. El día 10 es el más lluvioso: numerosos puntos repartidos por el territorio registran precipitaciones superiores a 30 mm, en forma de nieve en cotas por encima de los 400-500 m.

La temperatura se ha comportado de manera muy fría en el litoral y fría en el interior. La media en la costa se ha situado próxima a los 9 °C, más de 1 °C por debajo del promedio; y a los 5 °C en la Llanada Alavesa. Los valores más elevados se registran el día 22, afectando a zonas altas (Iturrieta 21.6 °C, Roitegi 21.1 °C). Las mínimas llegan durante la cuarta semana, al instalarse las altas presiones sobre Europa occidental. Del 22 al 27 tan sólo la costa se libra de las heladas, en el interior llegan a ser moderadas (Espejo -6.6 °C, Salvatierra -5.7 °C el día 25).

El viento de componente norte ha sido el predominante hasta bien pasada la primera quincena del mes. El resto, vientos variables, continentales durante la cuarta semana y del sur en la recta final. Las rachas más intensas se registran el día 5, vientos del NW muy fuertes, incluso huracanados, en zonas de montaña y del litoral, originados por una depresión atlántica centrada en las Islas Británicas (Cerroja 135.1 km/h, Jaizkibel 130.3 km/h, Oiz 124.9 km/h). Destacan también las rachas muy fuertes en Párganos los días 9 y 17, 98.1 km/h y 92.8 km/h respectivamente, debidas a la circulación meridiana establecida por el anticiclón polar atlántico.

ABENDUA

Abenduan Atlantikoko antizikloiaren dortsala izan zen nagusi. Egoera honek, iparraldeko aire masa hotzak bidali eta elurra maila baxuetan botatzea ahalbidetu zuen. Abenduaren 19an, presio altuak Europa mendebaldean ezarri ziren eta presio gradiente txikiko egoera eragin zuen Iberiar Penintsulan, aurrerantzean eguraldi lehor eta eguzkitsua eraginez, eta barnealdean behe lainoa sortaraziz. Hilabeteko laugarren aste amaieran, ekialdetik etorritako aire masa hotzak, elurra kota baxuetara eraman zuen berriro. Hilabetea amaitzerako, Penintsularen ipar-mendebaldean depresiogune atlantiko bat kokatu zen, hegoaldeko haizea bidali zigun eta giroa epeldu egin zen.

Abendua hilabete hezetzat jo daiteke eta oso hezetzat Gipuzkoaren gehiengoan. Gipuzkoa barnealdean eman ziren pilaketa handienak, 250 mm-tik gora. Pilaketa txikienak, aldiz, Ebro bailaran kokatu ziren (Paganos 74 mm eta Zanbrana 79 mm) nahiz eta kopuru dezentea den eremu honetarako. Eguneke pilaketak handiak izan ez ziren arren, prezipitazioa iraunkorra izan zen eta gainera aipagarria da elurra egun askotan maila baxuetan agertu izana, 4 alditan, hain zuzen (hilaren 1ean eta 2an, 9an eta 11n, 13an eta 15ean, 26an eta 27an). Hilaren 10a izan zen euritsuena eta eremu askotan 30 mm-tik gorako pilaketak jaso ziren; elur moduan 400-500 m-tik gora.

Temperaturari dagokionez, hilabete hotza izan zen barnealdean eta oso hotza kostaldean. Kostaldean, batez bestekoa 9 °C inguruan ibili zen, balio normala baino 1 °C beherago. Arabako lautadan batez bestekoa 5 °C-ra inguratu zen. Temperatura epelenak hilaren 22an neurtu ziren, konkretuki mendi gailurretan (Iturrieta 21.6 °C, Roitegi 21.1 °C). Temperatura hotzenak, aldiz, laugarren astean neurtu ziren, Europa mendebaldean presio altuak kokatu zirenean. Honela, hilaren 22tik 27ra, izozteak eman ziren toki guztietan, kostaldean salbu, barnealdean gainera ertainak izan ziren (hilaren 25ean: Espejo -6.6 °C, Agurain -5.7 °C).

Hilabeteko lehen hamabostaldian eta egun batzuk geroagora arte iparraldeko haizea izan zen nagusi. Gainontzeko egunetan, norabide finkorik gabeko haizea ibili zen, laugarren astean kontinenteko haizea ezarri zen, eta hilabetea amaitzear zegoela hegoaldekoa. Hilaren 5an neurtu ziren haize-bolada gogorrenak, ipar-mendebaldeko haizea oso zakarra izan zen eta mendi inguruan eta kosta partean tarteka ufada bortitzak neurtu ziren (Cerroja 135.1 km/h, Jaizkibel 130.3 km/h, Oiz 124.9 km/h). Egoera honen erantzule nagusia Britainiar uharteetan gunea zuen Atlantikoko depresiogunea izan zen. Era berean adierazgarriak dira, Paganosen izandako ufada gogorrak (hilaren 9an 98.1 km/h eta hilaren 17an 92.8 km/h), Atlantikoan kokatutako antizikloi polarrak eragindako zirkulazio meridianoari esker.

